

Karl Polanyi

**Gure merkatu
pentsamolde zaharkitua**



GURE MERKATU PENTSAMOLDE ZAHARKITUA

Zibilizazioak pentsamendu eredu berri bat aurkitu behar du

Karl Polanyi *

Itzulpena: Iñaki Heras

(*) *Egileari eta artikuluari buruzko itzultzailearen oharra*

Karl Polanyi

(Viena, 1886-Toronto, 1964)

Vienan sortua, Budapestean eman zuen bere gaztaroa. Lehen Mundu Gerran zuzenean parte hartu zuen borrokan. Hala, errusiar frontean preso hartu zuten. Askatasuna lortu ostean, kazetari gisa aritu zen lanean bere jaioterrian, harik eta garai hartako jazarpenetatik ihesean, 1933. urtean Ingalaterrara joan zen arte. 1940. urtean Estatu Batuetara jo zuen, eta Vermont-eko Bennington College-en irakasle aritu zen. Ordutik, 1944. urtean argitaratu zuen bere obra handiena den *The Great Transformation* (Eraldaketa handia) idazteari ekin zion. Lan horren eragina medio, Columbia University ospetsuak bertan irakasle aritzera gonbidatu zuen. Garai hartan, arazoak izan zituen Estatu Batuetan gelditzeko; izan ere, emazteak Hungriako iraultzan parte hartu zuenez, herrialde hartara sarrera debekatu baitzioten. Horrenbestez, beti ere erbestean, Toronto eta New York artean etengabe bidaiatzen bizi izan zen, eta nekez lortu zuen bizitza akademikoan nolabaiteko egonkortasuna lortzea. Halatan, 1957. urtean bere bigarren obra handia argitaratu zuen: *Trade and Markets in the Early Empires* (Merkataritza eta merkatuak antzinako inperioetan).

Polanyi-ren lanek disziplina anitzeko izaera garbia dute. Berebiziko eragina izan dute ezein giza eta gizarte zientziengan; bereziki da azpimarragarria, ordea, Ekonomia Historia, Soziologia eta Gizarte-Antropologian izan duen eragina. Maizenik, Alemaniako Historia Eskolarekin lotu izan da; Weber, Simmel eta ildo bereko autoreekin, hain zuzen ere. Hein batean, halaber, Polanyi-ren lanak badu Marx-enarekin loturarik; baina, nolana dela, sakonak eta oinarrizkoak dira aldeak, hala nola Polanyi-k errotik kritikatzeko baitu marxisten determinismo ekonomikoa, muturreko liberalen determinismoarekin parekatuz. Hortaz, duda izpirik gabe, Durkheim, Malinowski eta Thurnwald eta ildo bereko soziologo eta ekonomia-antropologoekin du erlazio handiena egile honen lanak.

Polanyi-ren oinarrizko ideia ezaguna da oso historialari eta soziologoaren artean: ezagutzen diren kultura gehienetan ekonomia-erlazioak gizarte-erlazioen bidez definitzen direla dio, nahiz eta Kapitalismoak *eraldaketa handi* bat sortu duen, ezen ekonomia-erlazioek definitzen baitituzte gizarte-erlazioak. Egile honen aburuz, Industria Iraultza izan zen eraldaketa horren eragilea, izan ere antzinako gizarte-erlazioerako patroiak ezabatu eta merkatu-erlazioetan oinarrituriko berri batzuk sortu baitzituen. Gisa bertsuan, elkarrekikotasun, birbanatze eta komunitatearekiko betebeharrak erlazioen ordean, merkatu-erlazioak ezarri ziren, non gizakia eta lurra, beste ezein ondasunen antzera, salgai bilakatu ziren, eta, ondorioz, eraldaketa sozial handiak burutu. Polanyi-ren aburuz merkatu-gizartearen sorkuntza ez zen gauzak bere horretan utzita, bere-kabuz sortu; izan ere, historikoki, burgesa eta merkataria zen klase berri nagusiak Estatuarekin batera esku-hartu baitzuen bere aldeko ziren indar berri horiek sendotu asmoz.

Our Obsolete Market Mentality

Artikulu hau *Commentary* aldizkarian argitaratu zen 1947. urtean (13. zenbakia, 109-117 orr.). Egilearen iritziz, bere idatzi eta ikerketetan *The Great Transformation* idatzi ostean burutu zuen lehen aurrera-pauso aipagarria da. Baina areago, aipatu maixulan horren sintesi eta gibel solas antzera ere uler daiteke opuskulu bikain hau.

Eskertza

Eskerrik beroenak Koro Navarro itzultzaileari testu honi egindako beharrezko zuzenketengatik. Eskerrak, halaber, Complutenseko Carlos Prietori jatorrizko bertsioa bidaltzeagatik.

Makinaren Aroaren lehen gizaldia antsietate eta ikara artean amaituko da. Gizakia makinaren beharren menpe gogoz, areago, sutsu, jarri izanaren ondorioa izan zen aro haren arakasta material izugarria.

Hala, bada, kapitalismo liberala izan zen gizakiak Industria Iraultzaren erronkari eman zion erantzuna. Makina konplexu eta ahaltsuak erabiltzearen, giza-ekonomia merkatu autoerregulatuetako sistema bihurtu genuen, eta berrikuntza bitxi horri utzi genion gure pentsamoldea eta gure balioak moldatzen.

Egun, pentsamendu horien egiazkotasuna eta balio horietako batzuen baliagarritasunaz zalantza egiten hasiak gara. Estatu Batuetatik kanpora, nekez esan daiteke oraindik ere kapitalismo liberalik badenik. Berriz ere makinaren gizartean giza-bizia nola antolatu, hori da erabaki behar dugun auzia. Kapitalismo lehiakorren ehun gastatuaren azpian zibilizazio industrial baten lilura atzematen da, zibilizazio horren lanaren banaketa geldiarazlearekin, bizitzaren parekatzearekin, organismoaren aldean mekanismoak, eta berezkotasunaren aldean antolaketak duen garrantziarekin. Zientzian bertan eromenaren mehatxua ageri da. Hau da gure betiko buruhaustea.

Bidea ezin dezake markatu joan den mendeko idealei uko egite hutsak. Etorkizunari aurre egin behar diogu, nahiz eta horrek industriari gizartean duen lekua aldatzera eraman gaitzakeen, makinaren errealitate bitxia bereganatu ahal izateko. Demokrazia industrialaren bilaketa ez da soilik, jende gehienak usten duen bezala, kapitalismoaren arazoei irtenbidea bilatzea. Industriari berari erantzun bat bilatzea da. Horixe da gure zibilizazioaren arazo konkretua.

Ordena berri bat sortzeak barne-libertate jakin bat eskatzen du, eta horretarako ez gaude ondo prestatuak. Ekonomia sistemak gizartean jokatzen duen funtzio eta paperari buruzko ikusmolde sinplista batek utzi zigun merkatu ekonomia baten herentziak, ezintasunera murriztu gaitu. Krisia gaingidituko bada, giza-munduaren ikuspegi errealistagoa berreskuratu beharko dugu, eta ezagutza horren argitan moldatu gu guztion helburua.

Industrialismoa behin-behineko txertaketa da gizatasunaren milurteko izatean. Balantza gainean da oraindik ere saio horren emaitza. Gizakia, ordea, ez da izaki sinplea, eta hainbat modutara hil daiteke. Gure belaunaldiak hainbesteko pasioz aztertu duen norbanakoaren libertatearen auzia, ez da arazo larri honen alde bat baino. Izan ere, beste behar zabal eta sakonago baten parte bat baizik ez baita: makinaren erronka globalari eman beharreko erantzun berri baten beharra.

Oinarrizko heresia

Gure egungo egoera honela laburbil daiteke: zibilizazio industrialak gizakia desegin dezake. Baina geroz eta artifizialagoa den inguru batean bizitzeko beharra, hori ezin baita baztertu, ez da baztertu nahi eta, izan ere, ez litzateke baztertu behar, *horrelako ingurunean* bizia giza baldintzetara doitu ahal izateko egin behar denari irtenbidea aurkitu beharko zaio, gizakiak lur gainean bizitzen jarrai dezan. Inork ere ezin dezake jakin alde zuretik doikuntza hori gauzatu ahal izango den, ala, aitzitik, gizakia ahalegin horretan hilko den. Horrenbestez, gure kezkek ikutu goibela hartzen du.

Bitartean, amaitu da Makinaren Aroaren lehen fasea. Aro horrek gizarte-antolaketa jakin bat ekarri zuen, bere izena oinarrian duen erakundetik hartu zuena: merkatua. Sistema hori gainbeheran dago. Halaz ere, gure filosofia praktikoa errotik eraldatu du gertaera ikusgarri horrek. Gizakiari eta gizarteari buruzko nozio berriak arrunt bilakatu ziren, eta axioma estatusa hartu zuten. Hara hemen horiek:

Gizakiari buruz, bere motibazioak “materialak” edo “idealak” izan daitezkeela dion heresia, eta gizakiak bere bizitza materiala antolatzeko oinarrizko dituen pizgarriak “materialak”

direla onartzera behartuak gertatu ginen. Liberalismo utilitarista eta marxismo popularra, biak, iritzi berekoak dira ikusmolde horri buruz.

Gizarteari buruz, pareko doktrina proposatu zen, alegia, ekonomia sistemak “determinatzen” dituela gizarte-erakundeak. Iritzi hau are gehiago zabaldu zen marxisten artean liberalen artean baino.

Merkatu ekonomia batean, noski, bi baieztapenak egiazkoak ziren. *Halako ekonomia batean soilik ordea*. Iraganari buruz, gisa horretako ikusmolde bat anakronismoa zen. Etorkizunari buruz, ez zen aurreiritzi soil bat baizik. Alabaina, pentsamendu eskola nagusien eraginpean, zientziaren eta erlijioaren, politikaren eta negozioen aginpideak indarturik, betikoak, merkatuaren aroz haraindikoak balira bezala hartu ziren denboran zehar berez oso mugatuak ziren fenomeno horiek.

Gure adimena eta izaera murrizten, eta doikuntza salbatzailearen zailtasuna izugarri areagotzen dituzten doktrina horiek gainditzeko beharrezko izan daiteke gure kontzientzia berritzea.

Merkatuaren trauma

Laissez faire-aren sorkuntza trauma bat izan zen gizaki zibilizatuak bere buruaz zuen ikuspegirako, eta gizakia ez da erabat osatu horren ondorioez. Oso poliki ari gara mende bat ere ez dela gertatu zitzaigunaz jabetzen.

Ekonomia liberala, gizakiak makinari aurre egin zionean izan zen lehenengo erreakzioa, aurretik izan ziren baldintzei buruzko haustura bortitza izan zen. Kate-erreakzio bat hasi zen, eta lehen merkatu isolatuak baizik ez zirenak, merkatu autoerregulatuen *sistema* bihurtu ziren. Eta ekonomia berriarekin, gizarte berri bat jaio zen.

Hau izan zen funtsezko urratsa: lana eta lurra salgai bihurtu ziren, alegia, saltzeko ekoitzi *balira bezala* hartu ziren. Jakina, ez ziren berez salgaiak, ez baitziren inola ere ekoitzitako gauzak (lurra kasu), edota, ekoitziak izanik ere, ez saltzeko behintzat (lana kasu).

Halere, inoiz asmatu den fikziorik eraginkorra izan zen. Lurra eta lana askatasunez erosiz eta salduz, elementu horiei merkatu-mekanismoa aplikatzea lortu zen. Bazegoen orain bai lanaren eskaintza eta eskaria, bai lurraren eskaintza eta eskaria. Horrenbestez, bazegoen lan-indarraren erabilpenerako merkatu-prezio bat, soldata izenekoa, eta lurraren erabilpenerako beste merkatu-prezio bat, errenta izenekoa. Lanak eta lurra beren merkatu propioak zituzten, beren ekarpenaren bidez sortzen ziren benetako salgaiak zutenaren antzera.

Lana gizakiaren sinonimo eta lurra naturaren sinonimo besterik ez direla gogoan hartuz uler daiteke urratsaren benetako zenbaterainokoa. Salgaiaren fikzioak bere arau eta lege propioen arabera mugitzen den automata baten jokoaren menpe jarri zituen gizakiaren eta naturaren patua.

Ordu arte sekula ez zen antzekorik ikusi. Merkantilismoaren erregimenean berariaz egiten zen arren merkatuak sortze aldera, oraindik ere kontrako printzipioa zen nagusi. Lana eta lurra ez zeuden merkatuaren menpean; gizartearen egitura organikoaren parte ziren. Lurra saldu eta erosi zitekeen lekuetan, eskuarki, prezioa baino ez zuten ezartzen alde desberdinek; lana kontratugai zen lekuetan, aginte publikoak ezarri ohi zituen normalean soldatak. Lurra feudoaren, monasterioaren eta herrixkaren ohiturazko arauen menpe zegoen, baita ondasun higieziinei usadiozko zuzenbideak ezartzen zizkien mugen menpe ere; eskaletasun eta alferkeriaren aurkako legeek arautzen zuten lana, langile eta artisauen estatutuek, pobreen legeek, udalek ezarritako ediktuek eta baita lanbide-korporazioek ere. Hain zuzen ere, antropologoek eta historialariek ezagutzen zituzten gizarte guztiek, zentzu hertsian ulerturiko salgaietara mugatzen zituzten merkatuak.

Hala ba, merkatu ekonomiak gizarte mota berri bat sortu zuen. Gizarte horretan, ekonomia edo ekoizpen sistema bere kasa jarduten den mekanismo baten gomendio utzi zen.

Erakunde mekanismo batek kontrolatzen zituen gizakiak beren eguneroko jardueretan, eta orobat kontrolatzen zituen naturaren baliabideak.

Ongizate materialerako tresna hori gosearen eta irabaziaren pizgarrien mendeko zen soilik edo, zehatzago esanda, bizitzeko beharrezko diren baliabiderik gabe geratzeko beldurra eta mozkinak eskuratzeko itxaropena ziren gidari. Ondasunik ez zuten gizaki guztiek, elikatze beharra asetu ahal izateko, beren lana saldu beharko zuten bitartean, eta ondasunak zituztenek berriz merkatu merkeenetan erosi eta garestienetan saltzeko askatasuna izango zuten bitartean, makina itsuak gero eta salgai gehiago aterako zituen gizakiaren onerako. Langileek miseriari zioten beldurra eta haiei enplegua ematen zieten irabaziak lortzeko grinak mantenduko zuten zutik tramankulu handi hori.

Hori izan zen gizartearen gainontzeko erakundeetatik argi eta garbi bereizturik sortu zen “esfera ekonomiko” baten jatorria. Ondo funtzionatzen duen ekoizpen aparatutik gabe bizi daitekeen gizatalderik ez dagoenez gero, aparatu hori esfera desberdin eta bereizi batera eramateak gizartearen “gainerakoa” esfera horren menpeko egiteko ondorioa ekarri zuen. Eremu autonomo hori, berriz ere, bere funtzionamendua kontrolatzen zuen mekanismo batek erregulatzen zuen. Horren ondorioz, erabakigarria bilakatu zen gizarte-gorputzaren bizitzarako merkatu mekanismoa. Ez da harrizkoa horren eraginez sortu zen giza antolaketa inoiz ere irudikatu ez zen adinako gizarte “ekonomiko” bat izatea. “Motibazio ekonomikoak” guztiz nagusitu ziren erreinu beregain batean, eta gizabanakoa, halabeharrez, haren mende geratu zen, merkatuaren munstroak zanpatuta geratzeko mehatxupean.

Ikusmolde utilitaristara derrigorrez aldatu behar horrek halabeharrez desitxuratu zuen Mendebaldeko gizakiak bere buruaz zuen pertzepzioa.

Gosea eta irabazia, errege

“Motibazio ekonomikoen” mundu berri hau iruzur batean oinarritzen zen. Berez, gosea eta irabazia ez dira amodioa zein gorrotoa, arrokeria zein aurreiritzia baino “ekonomikoagoak”. Ezein giza-motibazio ez da, *per se*, ekonomikoa. Ez da *sui generis* ekonomikoa den esperientziarik, gizakiak erlijio, estetika edo sexu esperientziak izan ditzakeen zentzuan. Azken horiek sarritan esperientzia analogoak pizten dituzten motibazioak sortzen dituzte. Ekoizpen materialari buruz, termino horiek ez dute berez ageriko den esanahirik.

Gizarte-bizitzaren oinarrian datzan faktore ekonomikoak ez du inolako pizgarri jakinik sortzen, grabitazioaren lege unibertsalak sortzen ez duen bezalaxe. Bai, ez badugu jaten, hilko gara, noski; baina haitz batek jo eta zanpatuko bagintu ere. Baina gosearen hozkadak ez dira berehala, automatikoki, produzitzearen aldeko pizgarri bilakatzen. Produzizioa ez da ekintza indibiduala, talde-ekintza baizik. Pertsona bat gose bada ere, ez du horregatik zeregin jakinik. Etsipenak jota, lapurretara jo dezake, baina nekez har daitezke produktibotzat jarduera horiek. Gizakiarentzat, animalia politikoarentzat, gorabehera sozialek mugatzen dute dena, ez gorabehera naturalek. Ekoizpenak merkatu ekonomiaren baitan zuen antolaketak huts-hutsik ekarri zuen XIX. mendean gosea eta irabazia “ekonomikoak” balira bezala hartzea.

“Diru sarrera bat” lortzeko premiaren bidez daude gosea eta irabazia ekoizpenarekin loturik. Izan ere, gizakia, gisa horretako sistema batean bizitzen jarraitu ahal izateko, merkatuan ondasunak erostera behartuta dago, eta horretarako merkatuan beste ondasun batzuk salduz ateratako diru sarrerak behar ditu. Sarrera horien izena —soldata, errenta, interesa— saltzen denaren arabera aldatzen da: lan-indarraren, lurraren ala diruaren erabilpena; mozkin edo irabazia deritzona —enpresariaren ordainsaria— ekoizteko behar diren ondasunek duten prezioa baino garestiago saltzen diren ondasunen salmentatik dator. Hortaz, sarrera oro salmentetatik ateratzen da, eta salmenta orok, zuzenean ala zeharka, beren ekarpena egiten diote ekoizpenari. Azken hori, ez da, benetan, *sarreraren sorkuntzari*

buruz funtsezkoa. Gizabanako batek “sarrera bat irabazten” duenean, automatikoki egiten dio ekarpena ekoizpenari.

Agerikoa denez, gizabanakoek sarrerak sortzearen aldeko jarduerari ekiteko motibazio bat duten bitartean baino ez du funtzionatzen sistemak. Gosearen eta irabaziaren bultzadak — bakoitzak bere aldetik eta biek batera—, horietan dira gizabanakoaren motibazioak. Horrenbestez, bi motibazio horiek ekoizpenaren mekanismoan integratzen dira eta, hortaz, “ekonomikoak” bailiran hartzen dira. Parekotasun horrek gosea eta irabazia ezein sistema ekonomikok oinarrian beharko lituzkeen pizgarri bakarrak direla pentsaraz dezake.

Hori pentsazeak ordea ez du batere oinarririk. Gizarte desberdinak aztertuz gero, goseak eta irabaziak ez dituztela ekoizpen pizgarriak erakartzen egiaztatzen da, eta, hala gertatzen den lekuetan, bestelako motibazio sendoekin loturik egoten dira.

Arrazoi zuen Aristotelesek: gizakia ez da izaki ekonomikoa, izaki soziala baizik. Gizakiaren helburua ez da izaten ondasun materialak erosiz bere interesak zaintzea, aitzitik, areago izaten da borondate soziala, estatus soziala, balio sozialak eskuratzea. Xede horiek lortzeko bidea den heinean baloratzen du ondasunen jabetza. Gizakiaren pizgarriek onespren soziala lortzeko ahaleginarekin lotzen dugun jatorri “mistoa” dute, eta jarduera produktiboak bigarren mailakoak dira xede horri dagokionez. *Gizakiaren ekonomia, eskuarki, bere erlazio sozialetan murgildurik dago*. Aitzitik, ekonomia sisteman murgildurik zen gizarte baterako aldaketa, erabat bilakaera berria izan zen.

Gertaerak

Puntu honetan, nik uste, gertaeretan oinarrituriko frogak aurkeztu behar lirateke.

Lebenik, ekonomia primitiboari buruzko aurkikuntzak daude. Oroz gain, bi izen dira aipagarri: Bronislaw Malinowski eta Richard Thurnwald. Haien eta beste zenbait ikerlarik esparru honetan genituen ikusmoldeak irauli zituzten, eta, iraultza horren bidez, disziplina berri bat sortu zuten. Aspaldi eraitsi zen basati indibidualistaren mitoa. Ez dago berekoikeria primitiboaren aldeko inolako frogarik, ez trukearen, hartu-emanen edo merkataritzaren aldeko joera apokrifoaren aldekorik, ezta norbere burua zerbitzatzekoaren aldekorik ere. Baina era beretsuan ezeztatu zen basatiaren psikologia komunistaren elezaharra ere, bere interes propioei buruzko ustezko axolagabetasun hura. (Funtsean, gizakia berbera izan dela aro guztietan ikusi zen. Gizakiaren erakundeak ez badira era banaka hartzen, elkarrekiko loturan baizik, gizakia guretzako erabat ulergarria den moduan aritzen zela egiaztatzen da). “Komunismoa” zirudiena zera zen, eskuarki, ekonomia edo ekoizpen sistema halako eran antolatzen zela, non gizabanakoak ez baitzion txirotasunaren mehatxuaren arriskuari aurre egin beharrik. Ziurtaturik zuten denek leku bat suaren inguruan eta parte bat baliabide komunetan, ehiza, abel-zaintza, lur-zaintza edo baratze-zaintzan egindako ekarpena kontuan hartu gabe.

Ikus ditzagun zenbait adibide: kaffir-en *kraal-land* sisteman, “gabezia ezinezkoa da; beharra duenak automatikoki jasotzen du” [L.P. Mair, *An African People in the Twentieth Century*, 1934]. Kwakiutl batek ez du “inoiz izan gose izateko arriskurik” [E.M. Loeb, *The Distribution and Function of Money in Early Society*, 1936]. “Biziraupen mugan bizi diren gizarteetan ez da goserik hiltzen den gizakirik” [J.M. Herskovits, *The Economic Life of Primitive Peoples*, 1940]. Horrela bada, gizabanakoak ez du gose izateko arriskurik, komunitate osoa egoera horretan denean izan ezik. Gizarte primitiboetan miseria indibidualaren arriskurik ez izateak egiten du, zentzu jakin batean, eta XIX. mendekoaren aldean, gizarte hori gizatiarrago, eta era berean, ez hain “ekonomikoa”.

Gauza bera esan daiteke norbanakoaren irabaziaren pizgarriari buruz. Hara, berriz ere, beste aipu batzuk: “Ekonomia primitiboen ezaugarri bereizgarria da ekoizpenetik eta truketik irabaziak lortzeko inolako grinarik ez izatea” [R. Thurnwald, *Economics in Primitive Communities*, 1932]. “Irabazia, komunitate zibilizatuagoetan maiz lanerako pizgarria izaten

dena, inoiz ez da izaten sorterriko baldintza jatorrizkoetan lanerako pizgarria” [B. Malinowski, *Argonauts of the Western Pacific*, 1930]. Motibazio ekonomiko deitzen diren horiek berezkoak, naturalak balira gizakiarentzat, erabat ez-naturaltzat hartu beharko genituzke gizarte primitibo guztiak.

Bigarren, ikuspegi horretatik ez dago inolako desberdintasunik gizarte primitiboaren eta gizarte zibilizatuaren artean. Har dezagun adibide gisa antzinako hiri-estatua, inperio despotikoa, feudalismoa, hamairugarren mendeko bizitza urbanoa, hamalagarren mendeko erregimen merkantila, edota hemezortzigarren mendeko sistema araudizalea: sistema ekonomikoa sozialarekin nahastua dagoela egiaztatuko genuke beti ere. Pizgarriek jatorri desberdina dute: ohitura eta tradizioa, eginbehar publikoak eta konpromiso pribatuak, erlijio aginduak eta mendekotasun politikoa, zuzenbide betebeharrak eta araudi administratiboak, guztiak ere printzeak, udal aginteak edo lanbideen korporazioek ezarritakoaren arabera. Mailak eta estatusak, legearen obligazioak eta zigorraren mehatxuak, gorespen publikoak eta ospe pribatuak eragiten diote gizabanakoari ekoizpenean parte hartzera.

Gabeziaren beldurrik edo mozkinaren zaletasunik ez da falta izaten. Merkatuak gizarte mota guztietan azaltzen dira eta merkatariaren irudia zibilizazio mota askotan da ezaguna. Baina banakako merkatuek ez dituzte sistema ekonomikoa osatzen. Irabazia merkatarien eragilea zen soilik, zaldunena ausardia, apaizena errukia eta artisauena harrotasuna zen bezalaxe. Gure arbasoei ez zitzaion inoiz burutik pasa irabaziaren motiboa unibertsal bihurtzerik. Hemeretzigarren mendeko bigarren laurdenaren aurretik, merkatuak ez ziren izan gizartearen menpeko elementuak baizik.

Hirugarren, azter dezagun aldaketaren lastertasun harrigarria. Merkatuen nagusitasuna ez zen aldaketa kuantitatibo kontua izan, kualitatiboa baizik. Bere ekoizpenaz bizitzeko gai ziren familia-ekonomia guneen soberakinak saltzea ahalbidetzen zuten merkatuek ez zuten produkzioa gidatzen, ez ekoizleari mozkinik ematen. Merkatu ekonomiaren kasuan soilik eskuratzen dira sarrera *guztiak* salmenten bidez, eta lortzen dira salgai guztiak erosketaren bidez, ez bestela. Ez da mende bat ere Ingalaterran lan merkatu aske bat sortu zela. *Poor Law Reform* (1834) ospe txarrekoak gobernu patriarkalek txiroen alde ezarritako nolabaiteko laguntzak ezabatu zituen. Pobreen babesetxeak izen txarreko eta tortura psikologikoko lekuak bihurtu ziren, gosea eta miseria berak baino txarragoak. Goseak hiltzea edo lan egitea ziren pobreei geratzen zitzaizkien aukera bakarrak. Era horretan sortu zen lan eskuarentzako merkatu nazional lehiakor bat. Hamarraldi baten ondoren, *Bank Act* (1844) delakoak, urre-patroiaren printzipioa ezarri zuen; dirua egitea kendu zitzaion gobernuari, neurri horrek enplegu mailan izango zuen eragina kontuan hartu gabe. Aldi berean, lur-sailen legeen erreformek lur-jabeak mobilizatu zituen eta *Corn Laws* (1846), laboreen gaineko legearen ezeztazeak, munduko ale elkarte (*pool*) bat sortu zuen, kontinenteko nekazariak, babesik gabe, merkatuaren eskuetan utzi zituen.

Horrela, bada, ezarri ziren liberalismo ekonomikoaren hiru dogmak, merkatu ekonomiaren antolaketa printzipioarenak: lanak merkatuan aurkitu beharko lukeela bere prezioa; dirua berez erregulatzen zen mekanismo batek sortu behar zuela; salgaiek, horren ondorioak kontuan izan gabe, herrialde batetik bestera mugitzeko askatasuna izan behar zutela; azken finean, lan-merkatu bat, urre-patroia eta merkataritza askea. Berez elikatzen zen prozesu bat sorrarazi zen, eta haren ondorioz lehen batere kalterik egiten ez zuen merkatu egitura, izugarrikeria soziologiko bat bihurtzeraino zabaldu zen.

Lilurakeria baten sorkuntza

Gertaera horiek osatzen dute funtsean gizarte “ekonomiko” baten genealogiaren zirriborroa. Giza-munduak, baldintza horietan, “ekonomia” motibazioek determinatua bezala agertu behar luke. Erraz uler daiteke zergatia.

Bada, hartu nahi duzun motibazioa, antola ezazu ekoizpena motibazio hori norbanakoaren ekoizteko pizgarri delarik, eta delako motibazio horrek gizakia erabat menderatua daukan ikuskizuna izango duzu. Demagun motibazioak erlijioa, politika edo estetika duela oinarri; demagun harrotasunean, irudipenetan, amodioan edo inbidian oinarritzen dela; eta gizakia funtsean erlijioso, politikoa, estetikoa, harroa, irudikorra, amodioz betea edo inbidiaz lepo dela azalduko zaigu. Aitzitik, bestelako motibazioak urrutikoak eta abstraktuak irudituko zaizkigu, ez baitute jarduera produktiboan inolako eginkizunik izango. Aukeraturiko motibazio jakin hori gizaki “errealaren” adierazpen izango da.

Hala ere, gizakiek oso arrazoi desberdinengatik egiten dute lan, beti ere gauzak behar bezala ezartzen badira. Fraideek erlijioarekin loturiko arrazoiengatik aritzen ziren merkataritza tratuan, eta monasterioak Europako merkataritza gune nagusi bilakatu ziren. Trobriand uhartetako Kula merkataritza, ezagutzen den truke forma konplexuenetako bat, jarduera estetiko bat da oroz gain. Usadiozko irizpideek gidatzen zuten ekonomia feudala. Kwakiutl-en artean, industriaren xede nagusia ohoreari buruzko auziak errespetatzea dela dirudi. Despotismo merkantilistaren garaian, industria boterearen eta gloriaren zerbitzura jartzen zen maiz. Horrenbestez, fraideak edo jopuak, mendebaldeko Melanesiako biztanleak, kwakiutl-ak edo XVII. mendeko estatu-politikariak, erlijioak, estetikak, usadioak, ohoreak edo politikak gidatzen zituela pentsatzera jotzen dugu.

Kapitalismoan, gizaki orok sarrera bat irabazi behar du. Langile bat bada, bere lana ohiko prezioetan saldu beharko du; jabe bat baldin bada, ahalik eta mozkinik handiena atera beharko du, bere posizio soziala bere sarrera mailaren arabera baita. Goseak eta irabaziak —zeharka bada ere— goldatzera eta ereitera, irutera eta ehundutzera, meategietatik ikatza erauztera eta abioiak gidatzera bultzatzen ditu gizakiak. Hortaz, aipatu gizarte horretako kideek motibazio biki horiek gidatzen dituela pentsatuko dute.

Gertaeren arabera ordea, gizakia ez da inoiz izan teoria horrek eskatzen zuen bezain berekoia. Merkatu mekanismoak ondasun materialei buruz duen mendekotasuna azpimarratu duen arren, eragingarri “ekonomikoak” ez dira inoiz bere lanaren pizgarri bakarra izan. Ekonomista eta moralista utilitaristek alferrik bultzatu zuten gizakia bere egitekoetik “materialak” ez ziren bestelako motibazioak ezabatzen. Izan ere, ikerketa zehatzagoek gizakiaren motibazioa oraindik ere “mistoa” zela aurkitu zuten, eta ezin zirela gainera bere buruarekiko eta bestearekiko betebeharrekin zerikusia zuten motibazioak alde batera utzi —ezta, ezkutuan bada ere, gizakiak lanarekin disfrutatu ere egiten zuela.

Nolanahi dela ere, hemen ez gara benetako motibazioez arduratzen, balizko motibazioez baizik, ez ekonomia jardueraren psikologiak, ideologiak baizik. *Gizakiaren izaeraren ikusmoldeak azken horietan oinarritzen dira, ez lehenengoetan.* Hala bada, gizarteak jokabide jakin bat espero baitu bere kideengandik, eta nagusi diren erakundeek, neurri batean bada ere, jokabide hori bideratzeko gaitasuna duten heinean, gizakiaren izaerari buruzko iritziek ideal hori islatzeko joera izango dute, ideal horrek errealitatearen antza izan edo izan ez.

Horren arabera, gosea eta irabazia motibazio “ekonomiko” gisa definitu ziren, eta eguneroko bizitzan giza-jarduera sustatzen zutela suposatu zen, gainontzeko motibazioak etereoagoak eta izatearen oinarri materialarekin zerikusirik ez zutenak bailiran hartu zirelarik. Ohorea edo harrotasuna, hiritarren eskubideak eta betebeharrak, norberekiko errespetua eta umiltasuna ekoizpenarentzat garrantzirik gabekotzat hartu ziren, eta, bereziki, motibazio “idealista” gisa hartuak izan ziren. Hala, gizakiak bi osagai zituela pentsatu zen, bata goseari eta irabaziari lotua, eta bestea, ohoreari eta botereari. Bata “materiala” zen, eta bestea “ideala”; bata “ekonomikoa”, eta bestea “ez-ekonomikoa”; bata “arrazionala”, eta bestea “irrazionala”. Utilitaristek, urrutirago joanez, bi termino multzoak parekatu zituzten, gizatasunaren parte “ekonomikoari” arrazionaltasunaren aura emanez. Horregatik, sarrera bat sortzeko xedeaz soilik aritzen zela pentsatzeari uko egiten ziona ez zen soilik inmoraltzat hartzen, baita zorotzat ere.

Determinismo ekonomikoa

Areago, merkatuaren mekanismoak determinismo ekonomikoaren lilura sortu zuen, gizarte guztientzako lege orokor bat bailitzan.

Merkatu ekonomia batean, noski, lege hori baliagarria da. Izan ere, sistema horretan merkatuaren funtzionamenduak ez dio soilik gizartearen gainerakoari “eragiten”, aldiz, determinatu ere egiten du, hiruki batean aldeek angeluei eragin ez ezik, determinatu ere determinatzen dituzten bezala.

Har dezagun klaseen mailaketa. Lan-merkatuan, *berdin-berdinak* ziren, batetik, eskaria eta eskaintza, eta, bestetik, langile eta enpresari klaseak, hurrenez hurren. Merkatuek mugatzen zituzten kapitalista, lur-jabe, maizter, artekari, merkatar, profesional eta bestelako gizarte-klaseak, hain zuzen ere, haietako bakoitzari zegokien lur, diru eta kapital merkatuek, eta horien erabilerek, edota zerbitzu desberdinen merkatuek. Merkatuak mugatzen zituen gizarte klase horien diru-sarrerak, eta diru-sarrek haien maila eta estatusa.

Mendeetako ohituren erabateko aldaketa izan zen hori. Maine-ren esamolde ospetsuan, “kontratuak” “estatusa” ordezkatu zuen; edota, Tönnies-ek gogoko zituen hitzetan, “gizarteak” “komunitatea” ordezkatu zuen; edota, idatzi honetako terminoetan, *sistema ekonomikoa gizarte-erlazioetan txertatuta (embedded) egon beharrean, erlazio horiek zehuden sistema ekonomikoan txertaturik*ⁱ.

Merkatuak gizarte klaseak zuzenean mugatzen zituen artean, beste erakunde batzuek zeharka mugatzen zituzten. Estatu eta gobernuak, eskontza eta seme-alaben hazkundera, zientziaren antolaketa eta hezkuntza, erlijioa eta arteak, profesioaren hautaketa, bizikidetzak moduak, hirien egitura, bizitza pribatuaren estetika bera ere, dena, eskema utilitaristaren esanetara jarri behar zen, edota ez zuten behintzat merkatu mekanismoa oztopatu behar. Baina, nola oso giza jarduerak gutxi gauza daitekeen hutsean oinarriturik, santu batek ere bere zutabea behar baitu, merkatu sistemaren zeharkako eragina, azken batean, ia gizarte osoa mugatzeraino etorri zen. Horrenbestez, ia ezinezkoa suertatu zen okerreko ondorio bat saihestea, alegia, gizaki “ekonomikoa” gizaki “benetako” zen bezalaxe, sistema ekonomikoa zela “benetan” gizartea.

Sexua eta gosea

Alabaina, zuzenagoa litzateke oinarrizko giza-erakundeek motibazio nahasgabeak gaitzesten dituztela esatea. Gizabanakoaren eta bere familia zainketa, eskuarki, gosearen zioan oinarriz ez den bezalaxe, familiaren erakundeak ere ez du sexu motibazioa oinarri.

Sexua, gosea bezalaxe, beste pizgarrien kontrolatik askatzen denean, pizgarri indartsuenetako bat da. Horrexegatik agian ez da inoiz izaten sexu-sena, bere eten eta gutiziek, familiaren ardatza, edozein familia mota izanik ere; aitzitik, hainbat motibazio afektiboren nahasketa bat da familiaren ardatza, eta horien galarazten dute sexuak hondatzea gizakiaren zorianarentzat hain garrantzitsua den erakunde bat. Sexuak, berez, ez luke inoiz burdel bat baino gauza hoberik sortuko, eta horretarako ere beharrezkoa litzateke merkatu mekanismoaren pizgarriren bat baliatzea. Funtsezko motibazioa gosea lukeen sistema ekonomiko bat, sexu sen soilean oinarrituriko litzatekeen familia sistema bezain gaiztoa litzateke.

ⁱ “*Embeddedness*” terminoaren adiera hau da gizarte-jakintzari Polanyi-k egindako ekarpenik handienetakoa. Termino horren bidez ekonomia, autonomia izan beharrean, politika, erlijio eta gizarte-erlazioen menpekoea dela azpimarratu nahi du egileak; alegia, gizartean txertaturikoa (Itzul. oharra).

Gizarte guztiei determinismo ekonomikoa aplikatu nahia fantasiatik oso hurbil dago. Gizarte antropologia aztertzailearentzat ez dago ezer bistakoagoarik ia erabat berdinarak diren ekoizpen bideekin bateragarriak diren erakundeen aniztasuna baino. Gizakiaren erakunde-sormenak behera egin badu, merkatuari giza-materiala txikitzen utzi eta ilargiko paisaia bezalako berdinkeria laura murriztu duelako gertatu da soilik. Ez gaitu harritu behar gizakiaren irudimen sozialak gelditasun seinaleak erakusteak. Basati egoeran zituen elastikotasuna, aberastasuna eta irudimen kemena erabat galtzeraino ere irits daiteke.

Badakit, behin eta berriz kexu izanagatik ere nekez galeraziko dudala “idealista” izatea leporatzea. Hain zuzen ere, nonbait, badirudi motibazio materialei garrantzia kentzen diona motibazio “idealen” sendotasunarekin fidatzen dela. Hala ere, nekez egin daiteke oker handiagorik. Goseak eta irabaziaz ez dute gauza berez “materiala” denik. Bestalde, harrotasuna, ohorea eta boterea ez dira nahitaz gosea eta irabazia baino motibazio “garaiaioak”.

Dikotomia bera, hala diogu, arbitrarioa da. Erabil dezagun berriz ere sexuaren analogia, non “goi mailako” eta “behe mailako” motibazioen arteko bereizketa nabarmena aurki daitekeen. Alabaina, nola gosez hala sexuaz, arriskutsua da gizakiaren osagai “material” eta “idealen” arteko bereizketa *instituzionalizatzea*. Sexuari buruz, egia hori, gizakiaren oinarriko osotasunerako hain garrantzitsua dena, betidanik onartu da; ezkontza erakundearen oinarria da. Baina, gisa berean garrantzitsua den ekonomiaren alorrean ez da kontuan hartu. Alor hori gizartetik “bereiztu” da, gosearen eta irabaziaren erreinu direlakoan. Elikagaiei buruzko gure animalia-mendekotasunari biluztu egin da, eta erabateko askatasuna eman zaio gosek hiltzeko beldurrari. Alderdi “materialari” buruz dugun esklabotza umiliagarria, giza-kultura guztiak arintzen saiatu direna, berariaz bilakatu zen zorrotzagoa. Horixe dago Tawney-k gure ardura erakartzeko asmoz nabarmendu zuen “erosketa gizartearen eritasun” haren erroan. Eta Robert Owen-en talentuak bere onenak eman zituen, duela gizaldi bat, mozkinaren zioa “gizabanakoaren eta kolektibitatearen zorionerako erabat kaltegarria den printzipioa” gisa deskribatu zuenean.

Gizartearen errealitatea

Gizakiari bere eguneroko ekoizle jardueran berriz ere motibazio batasun batek eragin diezaion, gizarteak berriz ere sistema ekonomikoa beregana dezan, gure bizimoduak industria-ingurumenerakin sormenez ados daitezen, ni horien guztien aldekoa naiz.

Alderdi horietan guztietan, laissez faire filosofia, bere korolariora den gizarte merkatuarekin, txiki-txiki eginda geratzen da. Horretxek bereizi du gizakiaren funtsezko banakoa bitan: gizaki “erreal”, balio materialeen aldera egiten duena, eta gizaki horren parte “ideala”, hobe. Filosofia horrek gure gizarte-irudimena geldiarazten du, maila garai edo apalagoan, inkontzienteki, “determinismo ekonomikoa”-ren aurreiritzia berrindartuz.

Filosofia hori erabilgarria izan zen atzera utzi dugun industria zibilizazioaren fasean. Gizabanakoa pobretu ahala, gizarteak aberastu zuen. Egun, gizakiari bizitzaren osotasuna berriz ere itzultzea helburu duen oinarriko jarduerari ekin behar diogu, nahiz eta horrek, teknologiaren ikuspegitik, eraginkortasun gutxiagoko gizarte bat suposa dezakeen. Hainbat herrialdek, hainbat modutara, liberalismo klasikoa arbuiatzen dute. Eskuin, ezker eta zentrotik ere bide berriak ari dira esploratzen. Ingalaterrako sozialdemokratek, Ameriketako New Deal-aren jarraitzaileek, eta baita faxistek eta New Deal-aren kontra dauden amerikarrek, bere hainbat enpresa-zuzendaritza (*managerialist*) joeratakoek, guztiek ere, utopia liberala arbuiatzen dute. Eta egungo egoera politikoak, errusiarra den oro gaitzestera eramaten gaituenak, ez gintuzke eraman behar errusiarrek industria ingurumenaren zenbait oinarriko alderdiri irudimenez egoitzerakoan lortu dituzten zenbait emaitza kontuan ez izatera.

Orokorrean, “Estatuaren desagertzearen” itxaropen komunistak utopia liberalaren zenbait elementu, beste zenbait libertate instituzionalei buruzko axolagabetasun praktikoarekin konbinatzen dituela pentsatzen dut. Estatuaren desagertzeari buruz, ezinezkoa da gizarte industrialak konplexua denik ukatzea, eta ezin daiteke izan gizarte konplexurik, ondo antolaturiko botere zentralik gabe. Halaz ere, berriz diot, horrek ez du justifikatzen komunistek libertate instituzional jakinen auzia mespretxatzea.

Errealismo maila honetan aurre egin behar zaio norbanakoaren libertatearen auziari. Ezinezkoa da botere eta indarkeriarik gabeko gizarte bat izatea, ezta indarrak funtziorik ez lukeen mundu bat ere. Berez utopikoak diren itxaropen hauek betetzea agintzen zuen filosofia liberalak, joera faltsua eman zien gure idealei.

Merkatu sisteman gizarteak, bere osotasunean, ikusezin zirauen ordea. Pertsona batek bazuen pentsatzea berak arbuiatzen zituen Estatuaren ekintza hertsagarriak edota berari irabazirik sortzen ez zizkion langabezia eta bestelako gabekia egoerei buruzko erantzukizunik ez zuela. Bera ez zegoen pertsonalki boterearen eta balio ekonomikoaren gaiztakeriez kutsaturik. Fede onez eta bere alegiazko libertatearen izenean, errealitatea uka zezakeen.

Hala bada, boterea eta balio ekonomikoa errealitate sozialaren paradigma dira. Ez boterea, ezta balio ekonomikoa ere, ez dira giza borondatearen fruitu; eta haiei buruz ezinezkoa da lankidetzaz-eza. Taldearen iraupenerako beharrezkoa den adostasun maila bermatzeko funtzioa du botereak: David Hume pentsalariak azaldu zuen legez, iritzia da boterearen oinarri-oinarrizko jatorria, eta nork ez du, modu batera edo bestera, iritzirik? Gizarte guztietan, balio ekonomikoak bermatzen du ekoizten diren ondasunen baliagarritasuna; lanaren banaketak ezarritako zigilua da. Ondasunek giza-beharretan dute jatorria, eta, nola itxaron daiteke gauza bat beste bat baino nahiago ez izatea? Edozein iritzi edo desirak, zein gizartetan bizi garen kontuan izan gabe, boterearen sorkuntzan eta balioaren eraketan partaide egingo gaitu. Ez dago bestela jarduteko biderik. Gizartean boterea eta indarkeria baztertzen dituen ideal bat baliogabea da berez. Gizakiaren desira esanguratsuen muga hori baztertuz, merkatuan oinarrituriko gizarte ikusmoldearen oinarritzko heldutasun-eza nabarmentzen da.

Libertatearen arazoa

Merkatu ekonomiaren porrotak bi askatasun mota jartzen ditu arriskuan: batzuk onak dira eta beste batzuk txarrak.

Ez litzateke ez lorpen makala, baldin desagertuko balira, merkatuarekin batera, lagun hurkoa ustiatzeko askatasuna, gizarteari trukean pareko zerbitzurik eskaini gabe neurritz gaineko irabaziak lortzeko askatasuna, asmakuntza teknologikoak jendearen alde ez erabiltzeko askatasuna, edo etekin pribatua ateratzeko hondamendi publikoak ezkutuan manciatzeko askatasuna desagertzea.

Baina askatasun horiek guztiak aurrera egiten ikusi dituen merkatu ekonomia berak sortu ditu biziki estimatzen ditugun askatasunak ere. Oso estimu handian ditugu kontzientzia askatasuna, adierazpen askatasuna, elkartzeko askatasuna, elkarteak osatzeko askatasuna edota enplegua aukeratzekoa. Hala ere, hein handi batean, aipatu diren askatasun kaltegarriak sortu zituen ekonomia berberaren fruitu dira horiek ere.

Gizartetik banandua dagoen esfera ekonomiko bat izateak, nolabait esatearren, zatiketa bat sortu du politika eta ekonomiaren artean, gobernuaren eta industriaren artean; zatiketa horrek inorena ez den lurtean du jatorria. Aita Santuaren eta enperadorearen subiranotasunaren zatiketak, Erdi Aroko printzeak zenbaitetan anarkiatik oso gertu zen libertate egoeran utzi zituen bezala, XIX. mendean subiranotasuna gobernuaren eta industriaren artean zatitzeak ere, era berean ekarri zuen baita gizon pobreek ere bere estatus miserablea hein batean orekatzen zuten askatasunez gozatzera.

Eta horixe da libertatearen etorkizunari buruz egun den eszeptizismoaren oinarria. Badira, Hayek-ek dion antzera, merkatu ekonomiak erakunde askeak sortu zituen bezala, sistema ekonomiko hori desagertu ahala askatasun horiek esklabotzak ordezkatzeko dituela diotenik. Beste batzuek, Burnham-en antzera, ezin saihestuzkoa ikusten dute esklabotza mota berri bat, “zuzendarien gobernu” litzatekeena.

Era horretako argudioek aurreiritzi ekonomizista zein puntutaraino dagoen bizirik, hori besterik ez dute frogatzen. Ikusi dugunez, aurreiritzi hori ez da merkatu-sistema izendatzeko beste adierazmolde bat baizik. Ez da logikoa sistema horren existentziak dakarren behar ekonomikoaren indarretik sistema horren berorren ausentziaren ondorioak deduzitzea. Eta, egiaz da anglosaxoiar esperimentuaren kontrakoa. Ez sindikatuek, ez beharrezko errekrutatzeak ez zituzten Ameriketako herriaren oinarrizko eskubideak suntsitu, han, Estatu Batuetan, 1940 eta 1943 urte artean bizi izan zen edonork aditzera eman dezakeen bezala. Gerra garaian, Erresuma Batuak erabateko ekonomia plangintza ezarri zuen eta XIX. mendeko libertatea sortu zuen gobernu, eta bertan behera utzi zuen industriaren arteko bereziketa; hala ere, askatasun publikoak ez ziren inoiz egoera guttiz kritikoa hartan bezainbeste zaindu. Benetan, bada, sortu eta babestu nahi dugun adina askatasun izango dugu. Gizaki-gizartean ez dago determinatzaile *bakar bat* ere. Gizabanakoaren askatasunaren berme instituzionalak edozein ekonomia sistemarekin dira bateragarriak. Merkatu gizartean soilik ezarri zuen legea ekonomia mekanismoak.

Gizakia Vs. Industria

Gure belaunaldiak kapitalismoaren arazo gisa ikusten duena, zibilizazio industrial baten arazo askoz zabalagoa da zinez. Ekonomia liberalaren aldekoak ez du hori ikusten. Kapitalismoa sistema ekonomiko gisa defendatzerakoan, alde batera uzten du Makinaren Aroaren erronka. Alabaina, egun adoretuenak ere ikararazten dituen arriskuak ekonomiatik haratagoak dira. Monopolioen fenomenoek eta taylorizazioak sortutako buruhauste idilikoak, Hiroshima-k gailendu ditu. Zelatan dugu astakeria zientifikoa. Alemaniarrak eguzki-izpi hilgarriak sortuko zituen sistema bat diseinatzen saiatu ziren. Praktikan, baina, guk sortu genuen eguzkia ilundu zuten izpi eztanda. Eta hori gainera alemanak filosofia gaizto baten aldeko ziren artean, gu giza-filosofia baten aldeko ginelarik. Arriskuaren sinboloa ikusi beharko genuke.

Estatu Batuetan bi joera nabarmen daitezke arriskuaren dimentsioaz jabetzen direnen artean. Batzuek eliteetan eta aristokrazian, enpresa-zuzendaritzan (*managerialism*) eta enpresa handian sinisten dute; gizartea, bere osotasunean, sistema ekonomikoari hobeto doitu beharko litzaiokeela pentsatzen dute, eta sistema hori aldaketarik gabe mantendu beharko litzatekeela. Horixe da Mundu Zoriontsu Berriaren ideala, non gizakiak bera baino jakintsuagoak direnek diseinaturiko ordena bati eutsi behar dion. Beste batzuek, aitzitik, benetako gizarte demokratiko batean industriaren arazoa ekoizle eta kontsumitzaileen esku-hartze antolatuz konpondu beharko litzatekeela pentsatzen dute. Halako jarduera kontzientea eta arduratsua da, hain zuzen ere, libertatea gizarte konplexu batean gauzatzeko moduetako bat. Ordea, artikulu honek aditzera ematen duen bezala, gisa horretako ahalegin batek ezin dezake arrakastarik izan, ez bada merkatu ekonomiaren oinordentzan hartu dugun ikusmolde horren gizakiaren eta gizartearen oso bestelako ikusmolde batek gidatuta.